Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala | Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko uztailaren 4a, asteartea — 127 — Martes, a 4 de julio de 2017

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ADUNAKO UDALA

*Adunako udalerrian betelanak egitea arautzen duen ordenantzaren aldaketa.*

Jendea informatzeko arauzko epea inork erreklamaziorik edo oharkizunik aurkeztu gabe igaro denez gero, apirilaren 2ko 7/1985 legearen 49. artikuluaren azken paragrafoak adierazitakoari jarraituz, irmo eta behin betiko bihurtu da Udalbatzarrak «Adunako udalerrian betelanak egitea arautzeko ordenantzaren eguneraketa».

*Adunako udalerrian betelanak egitea arautzen duen ordenantza.*

HITZAURREA

2009ko maiatzaren 18ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua, onartu zen. Dekretu horrek, bere xedapen indargabetzailean balio gabe uzten ditu hondakin geldoak eta geldotuak kudeatzeko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretua eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuak 1995eko otsailaren 15ean emandako Agindua, hondakindegi, betelan eta lur-egokitzapenetarako proiektuen edukia ezartzen duena.

Era berean, 2008ko otsailaren 13ko *Estatuko Aldizkari Ofizialean* 105/2008 Errege Dekretua onartu zen, zeinak eraikuntza eta eraispen hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen duen.

Legedi orokorrari dagokionez, 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorrak (bereziki sailkatutako jarduerei eta horiei dagozkion lizentzien atala; 55-66. artikuluak eta II. Eranskina), betelanen jardueretan ere eragiten du. Aipatzekoa da, azkenik, 7/85 Legea, Tokiko Erregimenaren Oinarriak arautzen dituena (III. Kapituluak toki erakundeen eskumenak arautzen ditu).

Bestalde, Adunako Udaleko hiri planeamendu orokorreko Arau Subsidiarioetan ere betelanak, lur egokitzapenak eta obra-hondakinen isurketen erregimena arautzen da eta halako jarduerei aplikagarri zaien ingurumen arloko araubidea barneratzen da («Hirigintza Araudi Orokorra» dokumentuko 4. eta 5. atala).

Adunako udaletxean betelan jarduerak gauzatzeko aurkeztutako proiektu eta baimen-eskaeren kopurua aintzat hartuz, 2009 urtean, Udalak gaia arautzeko beharra antzeman zuen. Horrela, 2010eko azaroaren 11n, indarrean jarri zen «Adunako udalerrian betelanak egitea arautzen duen ordenantza.»

Ondorengo urteetan, betelanen araubideari eragiten dioten lege arloko aldaketak gertatu dira. Horrela, 2011ko uztailaren 29ko *Estatuko Aldizkari Ofizialean* hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legea argitaratu zen. Beranduago, 2012ko irailaren 3an, ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua argitaratu zen

## AYUNTAMIENTO DE ADUNA

*Modificación de la Ordenanza reguladora de la ejecución de rellenos en el municipio de Aduna.*

Transcurrido el plazo reglamentario de información pública sin que se haya presentado reclamación ni observación alguna, y en cumplimiento de lo dispuesto en el último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, se eleva a firme y definitiva la aprobación de la «Actualización de la Ordenanza reguladora de la ejecución de rellenos en el municipio de Aduna», acordada por el Ayuntamiento en Pleno.

*Ordenanza reguladora de la ejecución de rellenos en el municipio de Aduna.*

PREÁMBULO

El 18 de mayo de 2009 se publicó en el *Boletín Oficial del País Vasco* la aprobación del Decreto 49/2009, de 24 de febrero, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y la ejecución de los rellenos. Dicho Decreto invalida en su disposición derogatoria el Decreto 423/1994, de 2 de noviembre, sobre gestión de los residuos inertes e inertizados y la Orden de 15 de febrero de 1995 del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, sobre el contenido de los proyectos de vertederos, rellenos y acondicionamientos de terreno.

Asimismo, el 13 de febrero de 2008 se publicó en el Boletín Oficial de Estado la aprobación del Real Decreto 105/2008, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.

En lo que respecta a la legislación general, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco (en especial el capítulo sobre actividades clasificadas y sus correspondientes licencias; los artículos 55 a 66 y el Anexo II) afecta también a las actividades de relleno. Finalmente, hay que mencionar la Ley 7/85, reguladora de las Bases de Régimen Local (en cuyo Capítulo III se regulan las competencias de las entidades locales).

Por otra parte, la ejecución de rellenos, la adecuación de terrenos y el régimen de vertido de residuos de obra se regulan asimismo en las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal del Ayuntamiento de Aduna, en las que se incluye la normativa de medio ambiente aplicable a dichas actividades (apartados 4 y 5 del documento «Régimen Urbanístico General»).

Considerando el número de proyectos y solicitudes de licencia ligados a rellenos presentados, el Ayuntamiento de Aduna detectó, en 2009, la necesidad de proceder a su regulación. De este modo, el 11 de noviembre de 2010 entró en vigor la «Ordenanza reguladora de la ejecución de rellenos en el municipio de Aduna.»

En años posteriores se han introducido modificaciones de ámbito legal que afectan a la normativa de rellenos. Así, el 29 de julio de 2011 fue publicada en el *Boletín Oficial del Estado* la Ley 22/2011, de residuos y suelos contaminados. Posteriormente, el 3 de septiembre de 2012, se publicó en el *Boletín Ofi-*

EK\CV GAO-I-2017-04649

*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian*, zeinak eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen. Betelanei dagokionez, 112/2012 Dekretuaren Azken Xedapenetatik laugarrenak, 2009ko otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren hainbat atal eraldatu zituen (zehazki, 49/2009 Dekretuaren 26. artikulua moldatu zen, betelanak baimentzeko araubideari eragiten diona). Bestalde, 2013ko abenduaren 11ko *Estatuko Aldizkari Ofizialean* ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 legea argitaratu zen (II. Eranskinaren 9. Taldeko proiektuen artean hektarea 1 baino gehiagoko azalera hartzen duten betelanak agertzen dira eta horiek ingurumen eragin sinplifikatuaren prozedura jarraitu behar dute). Horrekin batera, 2015eko uztailaren 3an indarrean sartu zen 4/2015 legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, betelan jarduerengan ere eragina sortzen duena.

Orain artean azaldutakoa aintzat hartuz, Adunako udalerrian kokatutako jarduera horien kontrol eraginkorrago bat aurrera eraman asmoz, eta oro har, betelanak egiteko erabiltzen diren materialen arauz kontrako isurketak prebenitu, nahiz hondakin horien berrerabilpena, birziklapena eta orokorrean, tratamendu egokia ahalbidetzeko helburuarekin, Adunako Udalak «Adunako udalerrian betelanak egitea arautzen duen ordenantza»ren edukia moldatzea eta eguneratzea erabaki du.

ATARIKO TITULUA

*1. artikulua.*

Honako ordenantzan arautuko dena Adunako udalerrian ezarriko da.

*2. artikulua.*

Ordenantzaren helburu Adunako udalerrian kokatutako betelanen instalazioen gaineko jarraipen eta kontrol eraginkor bat gauzatzea da eta baita, Adunan dagoeneko aurki daitezkeen betelanen eraldaketen inguruko jarraipena nahiz kontrola gauzatzea ere. Modu osagarrian, ordenantza honen bidez udalerrian gertatu ohi diren arauz kontrako materialen isurketen arazoari aurre egin nahi dio Udalak, bereziki honako material edo hondakinei dagokionez: zaborra, eraikuntza eta eraispen hondakinak, tamaina handiko hondakinak, batez ere betelanen exekuzioari edo hondakinen legez kanpoko isurketei lotuta. Azkenik, ordenantza honek, Adunako «Etxeko eta merkataritzako hondakinen bilketa eta tratamenduaren udal ordenantza»rekin batera, hondakin mota horien kudeaketa modu egokian egin dadin bultzatu nahi du, beti ere, hondakinen kudeaketan eskumena duten udalez gaindiko erakundeek diotena aintzat hartuz, batez ere udalerrian gauzatu nahi diren hondakinen isurpenen, betelanen eta lur egokitzapenen gaian.

*3. artikulua.*

Araudi honek sor ditzakeen ondorioetarako, ordenantza honetan zehar agertzen diren kontzeptu ezberdinak indarrean dagoen araudian jasotako definizioetan daudenak izango dira.

Ildo honetan, betelana honakoa izango da: lurzoru naturaletik hartutako lur eta harriak erabiliz, inguru baten forma aldatzea. Hori dela eta, betelanak ezin du material artifizialik hartu ezta material naturalez egindako eraikuntza materialik, hau da, ez material zeramikorik, hormigoirik, etab.

Hondakinekin zerikusia duten kontzeptuak une bakoitzean indarrean dauden araudietan definituta daude eta ez dira ordenantza honetan errepikatuko.

*cial del País Vasco* el Decreto 112/2012, de 6 de junio, por el que se regula la producción y gestión de residuos de construcción y demolición. En lo concerniente a rellenos, la Disposición Final Cuarta del Decreto 112/2012 modificó diversos apartados del Decreto 49/2009, de 24 de febrero (en concreto, modificó el art. 26 del Decreto 49/2009, referente al régimen de autorización de rellenos). Por otra parte, en el *Boletín Oficial del Estado* de 11 de diciembre de 2013 se publicó la Ley 21/2013 de evaluación ambiental (dentro de los proyectos del grupo número 9 del Anexo II se encuentran los rellenos con superficie superior a 1 hectárea y éstos deben someterse al procedimiento de evaluación ambiental simplificada). Asimismo, el 3 de julio de 2015 entró en vigor la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, la cual afecta, a su vez, a la actividad de relleno.

Tomando en consideración lo anteriormente expuesto, y con el propósito de efectuar un control más eficaz de dichas actividades en el municipio de Aduna, así como de prevenir el vertido indebido de materiales utilizados para la ejecución de rellenos y de posibilitar la reutilización, el reciclaje y, en general, el tratamiento adecuado de dichos residuos, el Ayuntamiento de Aduna ha acordado adaptar y actualizar la «Ordenanza reguladora de la ejecución de rellenos en el municipio de Aduna.»

TÍTULO PRELIMINAR

*Artículo 1.*

Lo dispuesto por esta Ordenanza se aplicará en todo el término municipal de Aduna.

*Artículo 2.*

El objetivo de esta Ordenanza es llevar a cabo un control y seguimiento eficaz de las actividades de relleno ubicadas en el municipio de Aduna, así como de las modificaciones de los rellenos que puedan encontrarse ya ejecutados en dicho municipio. Complementariamente, el Ayuntamiento quiere acabar, a través de la presente Ordenanza, con los vertidos indebidos de materiales que vienen sucediendo en el municipio, en especial los vertidos de los siguientes materiales y residuos: basura, residuos de obras y derribos, residuos de gran tamaño, especialmente aquellos relacionados con la ejecución de rellenos y el vertido ilegal de residuos. Finalmente, por medio de esta Ordenanza y de la «Ordenanza para la recogida y tratamiento de residuos domésticos y comerciales» de Aduna, se pretende impulsar la adecuada gestión de este tipo de residuos, teniendo en cuenta en cualquier caso las observaciones de los organismos supramunicipales con competencias en la gestión de residuos, en especial en lo que concierne a vertidos de residuos, rellenos y adecuación de terrenos que se deseen llevar a cabo en el término municipal.

*Artículo 3.*

A efectos de esta normativa, los distintos conceptos que aparecen en la presente ordenanza se corresponden con las definiciones establecidas en la normativa actualmente en vigor.

En este sentido, se considerará relleno: la alteración morfológica de una zona mediante la utilización de tierras y rocas procedentes de suelo natural. En consecuencia, en un relleno no pueden utilizarse materiales artificiales, ni materiales procedentes de una construcción efectuada con materiales naturales, tales como cerámica, hormigón, etc.

Los conceptos relacionados con residuos se encuentran definidos en las normativas vigentes en cada momento, y no se repiten en la presente Ordenanza.

EK\CV GAO-I-2017-04649

LEHENENGO TITULUA

BETELANAK BAIMENTZEKO ARAUBIDEA

*4. artikulua.*

Udalerriko lur ez hiritargarrian egin nahi diren betelanek dagokion baimena izan beharko dute. Betelanak baimentzeaz Udala arduratuko da eta hurrengo artikuluetan zehazten den prozedura jarraituko da, herri-administrazioek bultzatutako azpiegitura linealeko lanetatik eratorritako soberakinekin egin nahi diren betelanen kasuan izan ezik (kasu horietan, 49/2009 Dekretuaren 26. artikuluko 4. atalean aipatzen diren herri-administrazioen baimenak lortu beharko dira) eta ingurumen inpaktuari buruzko 21/2013 legearen II. Eranskineko 9. Taldean jasotzen diren betelanen kasuan izan ezik (halako proiektuen kasuan, aipatu legeak araututako ingurumen eraginaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura jarraituko da).

Adunako hirigintza planeamendu orokorreko Arau Subsidiarioek ezarritakoa aintzat hartuz, era honetako isurketak soilik nekazal eta abeltzaintza landa lurrean, landazabaletan eta baso eremu produktiboan gauzatu ahal izango dira, aldez aurretik jardueraren sustatzaileak dagokion baimena eskuratu beharko duelarik.

Zabortegiak edo hondakinen biltegiratze-jarduerak debekatuta daude. Edonola ere, EAEko ingurumen organoaren baimena behar da zabortegietan biltegiratuz hondakinen isurketa eta ezabaketa aurrera eramateko.

*5. artikulua.*

1. Betelanen instalazioak gauzatzeko (betelan berriak egitea edo dagoeneko udalerrian kokatuta dauden betelanen eraldaketak edo zabalkuntzak aurrera eramatea) udal baimena eskuratzea beharrezkoa da, eta hala dagokionean, gaikako bestelako araudiren baten bidez aplikagarri zaion baimen erregimena ere kontuan hartu beharko da.

Dagoeneko udalerrian kokatuta dauden betelan-instalazioen eraldaketa edo handitze proiektuen kasuan, Adunako Udalak ingurumen gaietan eskumena duen organoari betelan horiei buruz eskuartean duen informazioa bidaltzeko eskatuko dio.

2. Herri-administrazioek bultzatutako azpiegitura linealeko lanak (trenbideak, errepideak, autobiak, eta abar) egin nahi direnean eta horietatik eratorritako soberakinak Adunan kokatuko den betelan bat egiteko erabili nahi badira, 2009ko otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren 26. artikuluko 4. atalean jasotakoarekin bat etorriz, betelan hori baimentzeaz arduratuko den herri-administrazioa, kasuan kasu, Eusko Jaurlaritza edo Gipuzkoako Foru Aldundia izango da.

3. Halaber, erauzketa-jardueren eraginpean dauden eremuak berreskuratzeko lanen barruan meatzaritza-lanetatik kanpoko materialekin egin beharreko betelanetarako, ingurumengaietan eskumena duen sailaren nahitaezko txosten loteslea beharko da.

*6. artikulua. Betelana egiteko udal baimena.*

1. Urte batetik gora luzatzen diren 500.000 m$^3$ baino edukiera handiagoko lurrarekin eta harriekin egindako betelanek eta, orobat, haiek aldatzeko edo handitzeko lanek, Udalaren jarduera sailkaturako udal-baimena beharko dute, artikulu honetako 5. artikuluaren 2. atalean adierazitako kasuetan izan ezik.

2. 500.000 m$^3$ baino edukiera txikiagoko betelanak egiteko, Udalari, aldez aurretik, jarduera sailkatua egingo dela jakinarazi behar zaio (jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa egitea beharrezkoa da).

3. Edozein kasutan, proiektuaren bidez okupatuko den azalera hektarea 1 baino handiagoa izanez gero, 2013ko aben-

TÍTULO PRIMERO

RÉGIMEN DE AUTORIZACIÓN DE RELLENOS

*Artículo 4.*

Para realizar un relleno en suelo no urbanizable del municipio, se deberá obtener la correspondiente autorización. La ejecución de los rellenos deberá ser autorizada por el Ayuntamiento, de acuerdo con el procedimiento establecido en los siguientes capítulos, salvo cuando se trate de rellenos que pretendan ejecutarse con excedentes procedentes de obras de infraestructura lineal promovidas por las administraciones públicas, en cuyo caso deberán obtenerse las licencias de las correspondientes administraciones públicas, previstas en el apartado 4 del art. 26 del Decreto 49/2009, o rellenos recogidos dentro de los proyectos del grupo n.º 9 del Anexo II de la ley 21/2013 de impacto ambiental (estos proyectos se someterán a evaluación de impacto ambiental simplificada).

De acuerdo con lo establecido en las Normas Subsidiarias de planeamiento municipal de Aduna, este tipo de vertidos únicamente podrá realizarse en las zonas rurales agroganadera y de campiña, así como en zonas forestales productivas. En todo caso, el promotor de la actividad deberá obtener previamente la correspondiente autorización.

Quedan prohibidos los vertederos o actividades de almacenamiento de residuos. En cualquier caso, previamente al vertido y eliminación de residuos mediante su depósito en vertederos deberá obtenerse la correspondiente autorización del órgano medioambiental de la CAPV.

*Artículo 5.*

1. Para ejecutar instalaciones de relleno (para realizar un relleno o para modificar o ampliar un relleno ya ejecutado en el término municipal), será necesario obtener la licencia municipal correspondiente y se deberá tener en cuenta el régimen que, en su caso, resulte aplicable a través de alguna otra normativa sobre la materia.

Cuando se trate de proyectos de modificación o ampliación de rellenos ya ejecutados en el término municipal, el Ayuntamiento solicitará al órgano medioambiental competente la remisión de la información de que pueda disponer sobre esos rellenos.

2. Cuando se trate de ejecutar obras de infraestructura lineal (líneas férreas, carreteras, autovías, etc.) promovidas por las Administraciones Públicas y los sobrantes procedentes de dichas obras se pretendan utilizar para realizar un relleno en el término municipal, el órgano administrativo competente para autorizar dicho relleno será el Gobierno Vasco o, en su caso, la Diputación Foral de Gipuzkoa, de conformidad con lo estipulado en el apartado 4 del art. 26 del Decreto 49/2009, de 24 de febrero.

3. Asimismo, requerirán informe preceptivo y vinculante del departamento competente en materia de medio ambiente, los rellenos a ejecutar con materiales externos a las labores mineras, en el marco de las actividades de restauración de zonas afectadas por actividades extractivas.

*Artículo 6. Licencia municipal para la ejecución del relleno.*

1. La ejecución de un relleno de tierras y rocas con una capacidad superior a 500.000 m$^3$ cuya ejecución se prolongue por un tiempo superior a 1 año, así como la modificación o ampliación del mismo, requerirá licencia municipal de actividad clasificada del Ayuntamiento, con excepción de lo señalado en el apartado 2 del presente artículo 5.

2. La ejecución de un relleno con una capacidad inferior a 500.000 m$^3$ deberá ser comunicada previamente al Ayuntamiento (se encuentra sometida al régimen de comunicación previa de actividad clasificada).

3. En todo caso, cuando la superficie que se prevea ocupar mediante el proyecto sea mayor a 1 hectárea, será obligatorio

EK\CV GAO-I-2017-04649

duaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, ezarritako prozedura jarraitzea beharrezkoa izango da. Ingurumen organoak ingurumen eraginari buruzko adierazpena eman arte ezingo dira betelanak baimendu.

*7. artikulua. Aurkeztu beharreko derrigorrezko txostenak.*

1. Kasu guztietan, jarduera sailkatutako baimen eskaerarekin edo aurretiazko komunikazioarekin batera, ur-gaietan eta bioaniztasunaren babesean eskumena duten eskumeneko organoek igorritako nahitaezko txostenak aurkeztu beharko dira Adunako udaletxean. Horretarako, sustatzaileak, aldez aurretik, egin nahi den betelanari dagokion proiektu teknikoa igorriko du ur gaietan eta biodibertsitate gaietan eskumena duten herri-administrazioetara (proiektu tekniko horrek, gutxienez, kokalekuaren egokitasuna, azpiegiturak eta betelanari buruzko baldintzak edo ezaugarriak jasotzen dituen memoria, planoak eta aurrekontua barneratuko ditu).

2. Betelana egiteko eskaerarekin edo aurretiazko komunikaziorekin batera aurreko paragrafoan zehaztutako txostenak aurkeztuko ez balira, sustatzaileak, gehienera ere, 2 hilabeteko epea izango du txosten horiek Adunako Udalaren esku uzteko.

3. Era berean, meatze-lanetatik kanpoko materialekin egin beharreko betelanak gauzatu nahi direnean, ingurumen gaietan eskumena duten organoen aldez aurretiko derrigorrezko txostena aurkeztu beharko du sustatzaileak, erauzketa-jardueren eraginpean dauden eremuak berreskuratzeko lanen baitan kokatuta.

4. Txosten horiek guztiak lotesleak dira.

*8. artikulua. Jarduera sailkatuaren udal-baimena lortzeko izapidea.*

6. artikuluko 1. atalean jasotzen dena aintzat hartuz, jarduera sailkaturako udal-baimena behar duten betelanen kasuan, sustatzaileak, udaletxean baimen-eskaera aurkeztu beharko du, eskaerari proiektu teknikoa erantsiz. Proiektu horrek bere idazleari dagokion profesionalen elkargoaren onespena izan beharko du, jarraian zehazten den gutxieneko edukia barneratuz:

I. Proiektu teknikoa:

Betelan proiektuaren nondik norakoen azterketa deskribatzailea barneratu behar du proiektu teknikoak, eta honako alderdi hauek jaso behar dira bertan:

1) Kokalekuaren egokitasuna:

Kokalekua hirigintza eta ingurumen-ikuspuntutik (biodibertsitateari eta urei dagokienez, esaterako) egokia den azaltzea. Biodibertsitatea eta urei dagokion egokitasuna azaltzeko, beharrezkoa izango da, besteak beste, gai horietan eskumena duten organoen txostena aurkeztea.

Horrekin batera, ustiapena jarri nahi den kokalekua inguruko paisaian nola integratuta dagoen aintzat hartu beharko du betelanaren sustatzaileak. Ildo honetan, paisaiari lotutako irizpideak aintzat hartu beharko ditu eta irizpide horien azalpen bat jasoko da proiektuan (jarduerak inguruko paisaian zer nolako eragina duen aztertu beharko da eta horren araberako neurriak proposatuko dira proiektuan bertan).

2) Azpiegiturak:

a) Betelana behar bezala egiteko zein zerbitzu-azpiegitura behar den definitu behar da: kontrol-txabola, ur-hornidura, sarbideak, deskargatzeko eta mantentze-lanak egiteko barnebideak, gurpilak garbitzeko instalazioa eta abar.

b) Drainatze-sarea diseinatu eta justifikatu behar da.

c) Betelanera sartzea galarazteko behar den aldi baterako itxitura naturala edo artifiziala deskribatu behar da.

cumplir el procedimiento contemplado en la Ley 21/2013 de 9 de diciembre de 2013, de evaluación de impacto ambiental. No se podrán autorizar rellenos que no cuenten previamente con la resolución de impacto ambiental otorgada por el órgano ambiental.

*Artículo 7. Informes preceptivos a presentar.*

1. En todo caso, se deberá presentar ante el Ayuntamiento, junto con la solicitud de licencia de actividad clasificada o la comunicación previa, informes remitidos por los órganos competentes en materia de biodiversidad y aguas. Para ello, la persona promotora deberá remitir previamente el proyecto técnico del relleno a los órganos administrativos competentes en materia de aguas y biodiversidad (dicho proyecto deberá contener, como mínimo, la idoneidad de la ubicación, una memoria comprensiva de las condiciones y características de la infraestructura o relleno a realizar, los planos y el presupuesto correspondiente).

2. En caso de no presentarse, junto con la solicitud de licencia para realizar el relleno o la comunicación previa, los informes mencionados en el párrafo anterior, el promotor dispondrá de un plazo máximo de 2 meses, para aportar dichos informes al Ayuntamiento de Aduna.

3. Asimismo, cuando se trate de ejecutar rellenos con materiales externos a trabajos de minería enmarcados en actividades de restauración de zonas afectadas por actividades extractivas, el promotor deberá presentar previamente el preceptivo informe de los órganos competentes en materia medioambiental.

4. Todos esos informes serán de carácter vinculante.

*Artículo 8. Procedimiento para obtener la licencia municipal de la actividad clasificada.*

De acuerdo con lo estipulado en el párrafo 1 del art. 6, en el caso de rellenos sometidos a la preceptiva licencia municipal para actividades clasificadas, el promotor deberá presentar dicha solicitud ante el Ayuntamiento, acompañada del correspondiente informe técnico. Dicho proyecto, visado por el colegio profesional al que corresponde la persona que lo ha redactado, incluirá, como mínimo, el siguiente contenido:

I. Proyecto técnico:

El proyecto técnico contendrá un análisis descriptivo de los pormenores del proyecto de relleno, y deberá recoger los siguientes aspectos:

1) Idoneidad de la ubicación:

Deberá justificarse la idoneidad del emplazamiento, en materias tales como biodiversidad y aguas. Para justificar la idoneidad de la ubicación en materia de biodiversidad y aguas, deberá presentarse, entre otros, el informe del órgano competente en dichas materias.

Asimismo, el promotor del relleno deberá considerar el modo de integrar en el paisaje del entorno el emplazamiento donde se pretende ubicar la explotación. En este sentido, deberá tener considerar criterios paisajísticos, justificándolos en el proyecto a presentar (deberá incluirse un análisis de los posibles impactos paisajísticos de la actuación, proponiendo las pertinentes medidas a aplicar, en el propio proyecto).

2) Infraestructuras:

a) Definición de la infraestructura de servicios necesaria para la correcta ejecución del relleno: caseta de control, suministro de agua, accesos, viales interiores de descarga y mantenimiento, instalación de limpieza de ruedas, etc.

b) Diseño y justificación de la red de drenaje.

c) Descripción del cerramiento temporal natural o artificial que deberá existir a fin de impedir el libre acceso al relleno.

EK\CV GAO-I-2017-04649

3) Ustiapena:

Ustiapenari buruzko informazioak datu hauek jaso beharko ditu:

a) Betelanaren arduradun teknikoa zein izango den zehaztea.

b) Jarduerak behar bezala funtzionatzeko asmoz, bere funtzionamendu egokiaren gaineko ardura teknikoa izango duen pertsona izendatu beharko da.

c) Sarbideak kontrolatzeko sistema egokia definitu behar da.

d) Betelanaren baldintzak deskribatuko dira:

— Betelana egiteko erabiliko diren hondeaketa-materialen kantitatea eta jatorria adierazi behar dira. Materialak lurra kutsa dezakeen jarduera bat duen edo izan duen lursail baten hondeaketatik badatoz, nahitaez, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoaren aldeko erabakia jaso behar da, 4/2015 legeak, ekainaren 25ekoak, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoak araututakoa bete dadin.

(Lursailak lurra kutsa dezakeen jarduera duen edo izan duen jakiteko, lurra kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten kokalekuen inbentarioa kontsulta daiteke –Eusko Jaurlaritzan ingurumen arloan eskumena duen sailaren bidez nahiz Adunako Udalari aurretiazko kontsulta bat eginez–).

— Hondakinak garraiatzeak sortzen dituen arazoak aztertu behar dira; hala, instalaziora doazen kamioien ondorioz zirkulazioa gehitzetik sor daitekeen inpaktua aztertu behar da. Ildo honetan, sustatzaileak ingurumen eragin hori leuntzeko proposatutako neurri zuzentzaileak zehaztu beharko ditu. Gainera, Adunako udalerrian kokatutako herri-bideak babestu, defendatu eta zaintzeko ordenantzak dioena ere bete beharko da.

— Betelanaren egonkortasuna justifikatu behar da. Hondakinak botatzeko prozesua deskribatu behar da, eta horretarako egiten diren eragiketa unitarioak eta erabiltzen diren makinak zehaztu behar dira.

— Betelana egin nahi den tokiak hondeaketa-materialak hartzeko, guztira eta egunean, zer ahalmen duen aztertu behar da, eta betelana egiteko epeari buruzko azalpenak ere jaso beharko dira.

— Betelana bukatutakoan paisaia nola berreskuratuko den eta lursailak zertarako erabiliko diren zehaztu behar da.

II. Aurrekontua:

Honako informazioa barneratuko du aurrekontuak:

— Neurketak.

— Aleko prezioen koadroa.

— Aurrekontu partzialak.

— Aurrekontu orokorrak.

III. Planoak:

Planimetriaren barruan, gutxienez, honako plano hauek sartu behar dira eskala egokian:

— Posizioaren plano geografikoa, 1:25.000ko eskalan.

— Kokalekuaren planoa 1:1.000ko eskalan, edo, bestela, 1:5.000ko eskalan.

— Isurketa-eremua, 1:5.000ko eskalan.

— Betetze-eremuaren kartografia hidrogeologikoa, inbentarioan jasotako ur-puntuak azalduz, 1:10.000ko eskala baino txikiagoan.

3) Explotación:

La información referente a la explotación deberá contener los siguientes extremos:

a) Identificación del responsable técnico del relleno.

b) Se indicará una persona responsable técnica del relleno, que será la encargada del correcto funcionamiento del mismo.

c) Deberá definirse un sistema adecuado de control de accesos.

d) Se describirán las condiciones del relleno:

— Se indicarán la cantidad y procedencia de los materiales de excavación, con los que se va a realizar el relleno. En el supuesto de que los materiales procedan de la excavación de un terreno que soporte o haya soportado una actividad potencialmente contaminante del suelo, se deberá contar con la resolución favorable del órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en cumplimiento del procedimiento de declaración de la calidad del suelo, establecido en la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo.

(En orden a determinar si el terreno soporta o ha soportado una actividad potencialmente contaminante del suelo, se podrá consultar el inventario de emplazamientos que soportan o han soportado actividades potencialmente contaminantes del suelo, a través del departamento del Gobierno Vasco con competencia en materia ambiental, o bien realizando una consulta previa al Ayuntamiento de Aduna).

— Se analizarán los problemas que pueda conllevar el transporte de los residuos, y se estudiará el impacto derivado del incremento de tráfico, como consecuencia del tránsito de camiones hacia la instalación. En ese sentido, el promotor deberá detallar las medidas correctoras propuestas para atenuar dicho impacto ambiental. Además, se deberá cumplir lo dispuesto en la Ordenanza sobre protección, defensa y conservación de las vías públicas del municipio de Aduna.

— Se justificará la estabilidad del relleno. Asimismo, se describirá el proceso de vertido de residuos, con indicación de las operaciones unitarias que comprende, y la maquinaria a utilizar.

— Se estudiará la capacidad, total y por día, del relleno para la recepción de materiales de excavación, incluyendo los cálculos sobre el plazo de realización del relleno.

— Se especificará la recuperación paisajística de la zona y el destino de los terrenos, una vez finalizado el relleno.

II. Presupuesto:

El presupuesto contendrá la siguiente información:

— Mediciones.

— Cuadro de precios unitarios.

— Presupuestos parciales.

— Presupuestos generales.

III. Planos:

Dentro de la planimetría se deberán incluir, como mínimo, los siguientes planos a escala adecuada:

— Plano geográfico de situación, a escala 1:25.000.

— Plano de emplazamiento, a escala 1:1.000 o en su defecto 1:5.000.

— Área de escorrentía, a escala 1:5.000.

— Cartografía hidrogeológica de la zona de relleno, con representación de los puntos de agua inventariados, a escala inferior a 1:10.000.

EK\CV GAO-I-2017-04649

— Plano takimetrikoak, hasierako egoeraren eta geroko amaierako egoeraren maila-kurbak azalduz, eta proiektatuko diren instalazio finkoak zehaztuz:

* Instalazio nagusia.
* Sarbideak.
* Instalazioak.
* Itxiturak.

— Lursailaren luzetarako eta zeharkako atalen planoa, hondakinak botatzen hasi aurreko kotak eta bukatutakoan dauden kotak azalduz:

* Bolumenen kalkulua.
* Betetze-fasea.
* Egoki iritzitako beste edozein plano.

*9. artikulua. Jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioaren izapidea.*

6. artikuluko 2. atalean jasotzen dena aintzat hartuz, halako ezaugarriak dituen betelanaren sustatzaileak udaletxean, honako agiriak aurkeztu beharko ditu:

— Betelana egiteko aurretiko komunikazioa.

— Memoria teknikoa eta planoak. Memoria gaitutako profesionalak idatzitakoa izango da eta nahitaez barneratuko ditu biodibertsitate eta uren arloan eskumena duten herri-administrazioen txostenak. 7. artikuluko 3. atalean jasotako materialen kasuan, ingurumen gaietan eskumena duen organoaren aldez aurretiko derrigorrezko txostena ere erantsiko zaio memoria teknikoari.

— 10. artikuluko 2. paragrafoan zehazten den dokumentazioa, isuri nahi diren materialak lurzorua kutsa dezaketen jardueretan oinarritutako lursailetik datozenean.

— Gaitasuna duen pertsona teknikoak eginiko ziurtagiria, jarduera edo/eta instalazioak aurkeztutako dokumentazioarekin bat datozela eta indarreko araudia betetzen dutela ziurtatzeko.

*10. artikulua.*

Kasu guztietan, betelana egiteko erabiliko diren materialak egokiak direla bermatu asmoz, material horiek lurzorua kutsa dezaketen jardueretan oinarritutako lursailetik ateratakoak ez direla ziurtatzeko pausoak emango ditu Udalak. Horretarako, udalak, betelana sustatzen duenari, une bakoitzean beharrezkotzat jotzen dituen neurriak martxan jar ditzala eskatuko dio.

Horrelako lursailetatik datozen materialak izanez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoaren aldeko erabakia lortzea beharrezkoa izango da, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko 2015eko ekainaren 25eko 4/2015 legeak ezarritakoarekin bat etorriz. Halako materialak onartzeko aukera egiaztatzeko, eta material horiek betelanean bildu aurretik, kutsadura jasan duen edo jasaten duen partzela kokatuta dagoen udalerriko udalak prestatutako ziurtagiria (material horiek datozen partzela bakoitzeko ziurtagiri bana) aurkeztu beharko du betelanaren sustatzaileak Adunako udaletxean.

*11. artikulua.*

Betelanaren sustatzaileak udal erregistroan proiektu teknikoa eta orain artean adierazitako aurretiazko txosten lotesleak aurkeztu ostean, Udalak dokumentazioa berrikusiko du eta udal araudia aintzat hartuz, betelana egiteko udal baimenean, eskumena duten herri-administrazioek bere txostenetan ezarritako neurri edo baldintzez gain, babes neurri gehigarriak ezartzeko ahalmena izango du, betelanarengatik sor daitezkeen kalteengatiko fidantza edo neurri gehigarriekin batera (besteak beste, herri-bideetan egin daitezkeen kalteei aurre egiteko edo lanak behar bezala egingo direla bermatzeko).

— Planos taquimétricos, con indicación de curvas de nivel de la situación inicial y situación final, detallando las instalaciones fijas que se proyecten:

* Planta general.
* Accesos.
* Instalaciones.
* Cerramientos.

— Plano de las secciones longitudinales y transversales del terreno con indicación de las cotas antes de iniciarse el vertido y una vez finalizado el mismo:

* Cubicación de volúmenes.
* Fase de llenado.
* Cualquier otro plano que se estime necesario.

*Artículo 9. Trámite de comunicación previa de actividad clasificada.*

De acuerdo con lo establecido en el párrafo 2 del art. 6, el promotor del relleno de esta tipología deberá presentar en el Ayuntamiento la siguiente documentación:

— Comunicación previa de la ejecución del relleno.

— Memoria técnica y planos. La memoria, redactada por un profesional acreditado, deberá contener necesariamente los preceptivos informes de los órganos competentes en materia de biodiversidad y aguas. En el caso de los materiales mencionados en el apartado 3 del art. 7, se deberá adjuntar, asimismo, informe del órgano competente en materia medioambiental.

— En el caso de que los materiales de vertido procedan de terrenos que hayan soportado actividades potencialmente contaminantes del suelo, deberá presentarse la documentación prevista en el párrafo 2 del art. 10.

— Certificado emitido por un técnico competente en la materia, garantizando que la actuación y/o instalaciones se han ejecutado de acuerdo con la documentación presentada, y cumpliendo lo dispuesto en la normativa vigente.

*Artículo 10.*

En todo caso, a fin de garantizar que los materiales que se utilizan para la ejecución del relleno son los adecuados, el Ayuntamiento se asegurará de que dichos materiales no proceden de terrenos que hayan soportado actividades potencialmente contaminantes del suelo. Para ello, requerirá a la persona promotora del relleno la adopción de cuantas medidas considere necesarias.

En el supuesto de materiales prevenientes de dichos terrenos, se deberá disponer de la resolución favorable del órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en cumplimiento de lo establecido en la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo. A fin de comprobar la aceptabilidad de dichos materiales, y previamente a su acopio en el relleno, la persona promotora del relleno deberá presentar en el Ayuntamiento de Aduna un certificado emitido por el Ayuntamiento en cuyo territorio esté ubicada la parcela que soporta o haya soportado la actividad contaminante (un certificado por cada parcela de donde procedan dichos materiales).

*Artículo 11.*

Una vez presentados por el promotor del relleno el proyecto técnico y los informes vinculantes previos citados con anterioridad, el Ayuntamiento revisará la documentación aportada y, tomando en consideración la normativa municipal, podrá establecer las medidas protectoras adicionales, además de las impuestas por las Administraciones Públicas competentes en sus respectivos informes, junto con la fianza o medidas adicionales por los daños que se puedan producir a causa del relleno (para hacer frente a los daños que se puedan producir en las vías públicas o para garantizar que los trabajos se realizarán correctamente, entre otros).

EK\CV GAO-I-2017-04649

6. artikuluko 2. ataleko betelanen kasuan ere, memoria teknikoan eta aurkeztutako txostenetan jasotako neurriez gain, baldintza gehigarriak ezartzeko ahalmena izango du Udalak.

*12. artikulua. Isurketa egiten hasteko baimena.*

Betelanerako lursaila prestatzen hasteko, proiektu teknikoan finkatutako aurretiazko lanak burutu (sastrakak kentzea, drainatzea, harri-lubeta, lur begetal altxaketa eta alboko bilketa, perimetroaren itxiera, kamuflaje erako zuhaitzen landaketa, eta abar), eta Udalak nahiz eskumena duten sektorekako herri-administrazioek beharrezkotzat jotzen dituzten neurriak eta baldintzak bete beharko ditu sustatzaileak.

Edonola ere, lur-hondeaketak edo lur mugimenduak egiten direnean, lurzorua kutsatuta dagoela adierazten duen zantzurik detektatzen bada, ekintza horien arduraduna behartuta egongo da horren berri, berehala, udalari eta Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari ematera, organo horrek zer neurri hartu behar diren eta neurriok zein pertsona fisikok edo juridikok bete behar dituen zehaztu dezan.

Prestaketa lanak gauzatu ondoren eta isurpena egiten hasi aurretik, sustatzaileak udalari jakinaraziko dio betelana egiteko baldintza guztiak betetzen direla. Ondoren, udal zerbitzu-teknikoek betelana egingo den eremua bisitatu eta aldeko txostena prestatuko dute, bidezkoa bada.

Txosten horretan adieraziko da fidantza jarri beharko den eta fidantzaren kopurua zein izango den. Orokorrean, betelanen proiektuaren exekuzio materialaren % 5 izango da. Fidantza zuzenbidean onartutako edozein bide erabiliz formalizatuko da. Fidantza jarri ostean, isurketa egiten hasteko baimena emango du udalak.

*13. artikulua. Betelana amaitu ondorengo egiaztapena.*

Betelanaren fase ezberdinak amaituta eta berreskuratze lanak gauzatu ostean, interesatuak Udala jakinaren gainean jarriko du eta betelana bukatu izanaren egiaztatze-lanak egiteko eskatuko du. Behin jakinarazpena jasota, udal teknikariek ikuskapen bisita egingo dute betelana egin den eremura. Horrela, udal teknikariek bukaerako emaitzaren egokitasuna edo desegokitasunaren inguruko irizpena emango dute, eta hala badagokio, betelana itxi eta ezarritako fidantza itzuliko zaio sustatzaileari. Era berean, hala dagokionean, betelanaren sustatzaileak eskumen duten gaikako herri-administrazioek prestatutako txostenetan finkatzen den prozedura jarraitu beharko du. Betelanen emaitza desegokia bada, Udalak betelanen edo berreskuratze lanetan egin beharreko aldaketak, hobekuntzak edo zuzenketak jakinaraziko dizkio sustatzaileari, obligazio horiek betetzeko epea emateaz gain, dagozkion alegazioak aurkezteko epe bat emanez.

Ezarritako epe horretan agindutako lanak ez gauzatzekotan, Udalak berak egingo ditu konponketa horiek betelana egin duenaren kontura, eta fidantzatik kenduko dio beharrezkoa den kopurua.

*14. artikulua.*

Baldin eta utzitako fidantza, agindutako lanen gastua estaltzeko nahikoa ez balitz, Udalak ordaindu gabe dauden zenbatekoak betelana egin duenari eskatzeko espedienteari hasiera emango dio.

Udalak bere gain hartutako lanen kostua jarritako fidantzaren zenbatekoa baino txikiagoa izanez gero, Udalak alde hori interesatuari itzuliko dio.

*15. artikulua.*

Betelanaren bizitza operatiboan zehar dagozkion baimenetan ezarritako datuak aldian-aldian bidali beharko zaizkie eskumena duten organoei (bai Eusko Jaurlaritzak finkatutakoak zein Udalak zehaztutako datuak).

En el caso de los rellenos mencionados en el apartado 2 del art. 6, el Ayuntamiento podrá establecer, además de las medidas recogidas en la memoria técnica y los informes aportados, cuantos requisitos adicionales considere oportunos.

*Artículo 12. Autorización para el inicio de vertido.*

Previamente a la adecuación del terreno para efectuar el relleno, el promotor deberá cumplir las medidas y condiciones que tanto el Ayuntamiento como las Administraciones Públicas sectoriales competentes consideren necesarias (tales como retirada de arbustos, drenaje, escollera, levantamiento de tierra vegetal y recogida de la misma en un lateral, cierre del perímetro, plantación de árboles para camuflaje, etc.).

En el caso de que durante las obras de excavación o movimientos de tierras se detecten indicios que señalen la posible contaminación del suelo, la persona responsable deberá informar inmediatamente de la anomalía al Ayuntamiento y al órgano medioambiental de la CAPV, a fin de que éste establezca las medidas a aplicar, y determine la persona física o jurídica a quien corresponde aplicarlas.

Una vez realizados los trabajos preparatorios y previamente al comienzo del vertido, el promotor informará al Ayuntamiento del cumplimiento de todas las condiciones para proceder al relleno. Posteriormente, los técnicos municipales realizarán una visita de inspección de la zona y redactarán, en su caso, un informe favorable.

En dicho informe se establecerá si se ha de depositar fianza y, en su caso, el importe de la misma. En general, será el 5 % de la ejecución material del proyecto de relleno. La fianza podrá depositarse por cualquier medio admitido en derecho. Una vez depositada la fianza, el Ayuntamiento expedirá la licencia para dar comienzo al vertido.

*Artículo 13. Comprobación posterior a la finalización del relleno.*

Finalizadas las distintas fases del relleno y ejecutados los trabajos de recuperación de la zona, la persona interesada deberá ponerlo en conocimiento del Ayuntamiento, solicitando la comprobación de la finalización del relleno. Una vez recibida la notificación, el personal técnico municipal realizará una visita de inspección a la zona donde se ha ejecutado el relleno, y procederá a dictaminar si el resultado final es o no el adecuado. Si el resultado es positivo, se dará por finalizado el relleno, devolviendo al promotor la fianza depositada. Asimismo, el promotor del relleno deberá seguir ante las Administraciones Públicas competentes en la materia el procedimiento establecido en sus correspondientes informes. Si el resultado del relleno no fuera el adecuado, el Ayuntamiento informará al promotor de las modificaciones, mejoras o correcciones a realizar en el relleno o en la restauración, concediéndole un plazo para el cumplimiento de dichas obligaciones, así como para la interposición de alegaciones.

En caso de que dichos trabajos no se ejecuten en el plazo señalado, el Ayuntamiento ejecutará las mencionadas correcciones a cuenta de la persona que haya realizado el relleno, descontando el importe correspondiente de la fianza depositada.

*Artículo 14.*

En el supuesto de que la fianza depositada no cubra los gastos de los trabajos a realizar, el Ayuntamiento abrirá un expediente de reclamación de los importes no cubiertos por la fianza, a la persona que haya realizado el relleno.

En el caso de que el coste de los trabajos asumidos por el Ayuntamiento sea inferior al importe de la fianza, el Ayuntamiento devolverá la diferencia a la persona interesada.

*Artículo 15.*

Los datos indicados en las licencias deberán ser remitidos periódicamente, durante toda la vida operativa del relleno, a los órganos competentes (tanto los datos exigidos por el Gobierno Vasco como los precisados por el Ayuntamiento).

EK\CV GAO-I-2017-04649

HIRUGARREN TITULUA

ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK
ZEHAPEN AHALMENA.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

*16. artikulua. Xedea.*

1. Titulu honek herri-eremuan Adunako Udalak duen zehapen ahalmena arautzea du helburu.

2. Titulu honek, bereziki, bere baitan jasotako xedapenak ez betetzearen ondorio den zigor-erregimena arautzeari erreparatzen dio.

*17. artikulua. Integraziorako oinarriak eta arauak.*

Egungo legediak jasotakoaren arabera, Adunako Udalak zehapen ahalmena aplikatu ahal izango du, betiere, lege mailako arau batek hala adierazten duenean. Zehapen-ahalmena ordenantza honek jasotako zehapen-exekuziorako prozedura bidez egingo da. Era berean, zehapen ahalmena Administrazio Publikoen zehapen ahalmena arautzen den erregulazio-legedian, Prozedura Administratiboaren legedian eta zehapen erregimen ezberdinak ezartzen dituzten arlokako legean jasotakoarekin bat etorri beharko du.

II. KAPITULUA. ORDENANTZAREN ARAU-HAUSTEAK

*18. artikulua. Tokiko esparrua.*

Adunako Udalaren ordenantzan jasotako arau-hausteak Tokiko Erregimenaren legediak aurreikusitakoaren arabera zigortuko dira, beti ere arloko xedapenen batek ahalmena Udalarena dela adierazi eta dagozkion sailkapen eta zigorrak zehazten ez baditu behintzat.

*19. artikulua. Sailkapena.*

1. Ordenantza honetako titulu bakoitzak arau-hauste mota ezberdinak eta bakoitzaren berezitasunak zehaztu eta horien guztien sailkapena definituko ditu.

2. Dena den, ordenantza honek jasotako aginduen kontrako urraketa edo arau-hausteak zigor espediente baten tramitazio hasiera ekarriko luke berarekin, nahiz eta urraketa edo arau-hauste hori zehazki ordenantza honen artikuluetan tipifikatuta ez egon.

III. KAPITULUA. ARLOKO-LEGEDIAREN ARAU-HAUSTEAK

*20. artikulua. Gailentasuna.*

Toki Araubideetan nahiz Titulu honetako lehen artikuluan aipaturiko gainerako xedapenetan adierazi bezala, arlokako araudietan jasotako zehapen erregimenen bidez Udalari zehapen-ahalmenak aitortu edo esleitzen bazaizkio, horrek lehentasuna izango du Tokiko Erregimenaren Legediak ezartzen duenarengan eta baita Titulu honen II. Kapituluan finkatzen denaren gain ere.

*21. artikulua. Arlokako araudia.*

Adunako Udala babesten duten eskuduntza eta ardura publikoen barruan, gai honi lotutako arlokako edozein gai arautzeko gaitasuna ordenantza honetan jasoa geratzen da, betiere Tokiko Erakundeen zigortzeko ahalmena arautzen duen araudia kontuan izanik.

TÍTULO TERCERO

INFRACCIONES Y SANCIONES
POTESTAD SANCIONADORA

CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 16. Objeto.*

1. Este título tiene por objeto la regulación de la potestad sancionadora que corresponde al Ayuntamiento de Aduna en su término municipal.

2. Este título regula, en especial, el régimen sancionador derivado del incumplimiento de las disposiciones recogidas en el mismo.

*Artículo 17. Bases y normas de integración.*

En virtud de lo dispuesto en la vigente legislación, el Ayuntamiento de Aduna podrá ejercer su potestad sancionadora, siempre y cuando así lo especifique una norma de rango legal. La potestad sancionadora se ejercerá a través del procedimiento de ejecución de sanciones previsto en la presente Ordenanza. Asimismo, la potestad sancionadora deberá ser concordante con lo dispuesto en la legislación reguladora de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas, en la legislación sobre Procedimiento Administrativo y en las normativas sectoriales reguladoras de los diferentes regímenes sancionadores.

CAPÍTULO II. INFRACCIONES A LA ORDENANZA

*Artículo 18. Ámbito local.*

Las infracciones recogidas en la Ordenanza del Ayuntamiento de Aduna se sancionarán según lo previsto en Ley de Régimen Local, siempre que alguna disposición sectorial indique que dicha potestad corresponde al Ayuntamiento y especifique la tipificación de las mismas y las sanciones correspondientes.

*Artículo 19. Clasificación.*

1. Los diferentes tipos de infracción así como las particularidades de cada una de ellas se especifican en cada título de la presente Ordenanza, definiendo asimismo la clasificación de las mismas.

2. En cualquier caso, la infracción de los preceptos contenidos en esta Ordenanza conllevará el inicio de la tramitación de un expediente sancionador, aunque dicha infracción no esté expresamente tipificada en el articulado de la presente Ordenanza.

CAPÍTULO III. INFRACCIONES A LA LEGISLACIÓN SECTORIAL

*Artículo 20. Primacía.*

Tal y como se establece en los regímenes locales y en las demás disposiciones mencionadas en el primer artículo de este Título, cuando se confieran o reconozcan facultades sancionadoras al Ayuntamiento a través del régimen sancionador recogido en las normativas sectoriales, el mismo tendrá prioridad sobre lo dispuesto en la Ley de Régimen Local así como sobre lo establecido en el Capítulo II de este Título.

*Artículo 21. Normativa sectorial.*

En la presente Ordenanza queda recogida, dentro de las competencias y responsabilidades públicas que amparan al Ayuntamiento de Aduna, la facultad del mismo de regular cualquier cuestión sectorial que tenga relación con esta materia, teniendo siempre en cuenta la normativa reguladora de la potestad sancionadora de las entidades locales.

*22. artikulua. Organo eskumenduna.*

Sektorekako araudian ezartzen den sailkapenari dagokionez, Udalari aitortzen zaion zehapen ahalmena honako zehaztapenak aintzat hartuaz egingo da:

1. Euskal Herriko Ingurumenaren Babes Orokorrerako 3/1998 Legearen III. kapitulutik V. Kapitulura jasotako arauhausteak, baita lege beraren IV. Kapituluan jasotako gainerako zehapen eta ezarpenak ere, Alkate edo Presidentearen bitartez erabakiko dira.

*23. artikulua. Bestelako araudia.*

Adunako Udalak aurreko artikuluan aipatu diren sektorekako xedapenetatik ezberdinak diren xedapena arautzaileak ezarri ahal izango ditu, beti ere, Udalaren zehapen ahalmena onartu edo aitortzen dutenean. Horretarako, baina, Titulu honetan aurreikusitako nagusitasuna aintzat hartu beharko du Udalak eta, lege mailako arau batean kontrakoa esaten ez bada behintzat, Alkate-Presidentea izango da horretarako eskumena izango duena.

IV. KAPITULUA. ZIGOR ERREGIMENAREKIN BATERAGARRIAK DIREN NEURRIAK

*24. artikulua. Kautelazko neurriak.*

1. Alkate-Presidenteak, eta ohiz kanpoko kasuetan, ikuskaritza gauzatzen duen pertsonak, zehapen ahalmenetako jardueretarako, prozeduraren edozein unetan, interesatutako alderdiei gutxienez bost egunetako audientzia eskaera eginda eta elkarren arteko adostasuna egonik, ebazpenaren onurarako beharrezko deritzon kautelazko neurriak hartu ahal izango ditu prozedura ez oztopatzeko, edo aurrez epaitutako egoerak ez errepikatu edo hauen ondorio diren kalteak denboran zehar ez mantentzeko.

2. Kautelazko neurriek ez dute zigor izaera izango eta Administrazio Publikoen zehapen ahalmenerako 2/1998 Legearen 31. eta 32 artikuluetan jasotzen denaren arabera tramitatuko dira.

3. Aplikagarria den arlokako legedian jasotako baldintzek diotenarekin bat etorriz, kautelazko neurriak ondorengo jardueretan oinarritu daitezke:

a) Lan edo jarduerak bertan behera uztea.

b) Ibilgailu, ekipo edo lan tresnen zigilatzea.

c) Kaltearen hedapena edo arriskuaren jarraipena ekidingo duen bestelako zuzenketa, segurtasun edo kontrol neurriak.

*25. artikulua. Behartzeko isunak.*

1. Ez dira zigor izaerakoak izango eta bestelako zigorren ezarpenarekin independente izango dira Presidenteak ezarri ahalko dituen zenbait jarduera zehatz gauzatzeko behartzeisunak, betiere aplikagarriak diren legeek baimentzen badute.

2. Agindutakoa betetzeko behar den kasuetan, behartzeko isunak behin eta berriz ezarriko dira eta egokitzat jotzen den epealdian, honako kasuetan:

a) Behartuta aurkitzen den pertsona fisikoki isuna betetzera behartu ezin daitekeen egintza oso pertsonaletan.

b) Behartuta aurkitzen den pertsonaren gaineko konpultsio-ahalmena (pertsona fisikoki behartzeko ahalmena) egon arren, Administrazioak ahalmen hori erabiltzea komenigarritzat jotzen ez duen ekintza-sorta.

c) Behartutakoak ekintzaren gauzatzea besteren baten ardurapean utz ditzakeen ekintza sorta.

*Artículo 22. Órgano competente.*

La facultad sancionadora atribuida al Ayuntamiento en lo referente a la tipificación establecida en la normativa sectorial se ejercerá de acuerdo a las siguientes consideraciones:

1. El alcalde-presidente decidirá sobre las infracciones recogidas en los Capítulos III al V de la Ley 3/1998, general de protección del medio ambiente del País Vasco, así como sobre las demás sanciones e imposiciones mencionadas en el Capítulo IV de la misma ley.

*Artículo 23. Otras normativas.*

El Ayuntamiento de Aduna podrá establecer disposiciones reguladoras diferentes a las disposiciones sectoriales mencionadas en el artículo anterior, siempre y cuando las mismas aprueben o reconozcan la potestad sancionadora del Ayuntamiento. No obstante, para ello será necesario que el Ayuntamiento reconozca la primacía prevista en este Título, y será el alcalde-presidente quien posea esa la potestad, salvo que alguna norma de rango legal indique lo contrario.

CAPÍTULO IV. MEDIDAS COMPATIBLES CON EL RÉGIMEN SANCIONADOR

*Artículo 24. Medidas cautelares.*

1. En actos de facultad sancionadora, en cualquier momento del procedimiento, habiendo solicitado a las partes interesadas una audiencia de al menos cinco días y existiendo acuerdo mutuo, el alcalde-presidente y, en casos excepcionales, la persona que lleve a cabo la inspección, podrá tomar las medidas cautelares que juzgue necesarias para el bien de la resolución con el fin de no entorpecer el procedimiento, o de que no se repitan situaciones anteriormente juzgadas, o de que no perduren en el tiempo daños que son consecuencia de las mismas.

2. Las medidas cautelares no tendrán naturaleza penal y se tramitarán siguiendo lo estipulado en los artículos 31 y 32 de la Ley 2/1998, de potestad sancionadora de las Administraciones Públicas.

3. De conformidad con las condiciones establecidas en la legislación sectorial aplicable, podrán tomarse medidas cautelares en base a los siguientes actos:

a) Cese de los trabajos o actividades.

b) Sellado de vehículos, equipos o maquinaria de trabajo.

c) Cualesquiera otras medidas de corrección, seguridad o control que impidan la extensión del daño o la continuación del riesgo.

*Artículo 25. Multas coercitivas.*

1. No tendrán naturaleza penal, y serán independientes de la imposición de otras de sanciones, aquellas multas coercitivas que imponga el Presidente para llevar a cabo actividades concretas, siempre que así lo permita la legislación aplicable.

2. En los casos que así se requiera para el cumplimiento de las prescripciones, se aplicarán multas coercitivas repetidamente durante el plazo que se considere conveniente, en los siguientes supuestos:

a) Con ocasión de actos personalísimos, en los que no se puede forzar físicamente a la persona obligada a cumplir la multa.

b) En aquellos actos en los que, a pesar de que exista potestad de compulsión (potestad de obligar físicamente a la persona) sobre la persona que está obligada, la Administración no considera conveniente el uso de dicha potestad.

c) En aquellos actos cuya ejecución pueda la persona obligada encargar a otra persona.

EK\CV GAO-I-2017-04649

V. KAPITULUA. ARDURA

*26. artikulua. Zigorra eta erantzukizuna.*

1. Arau-hauste administratiboaren erantzule diren pertsona fisiko eta juridikoak soilik izan daitezke zigortuak, baita ez betetze sinpleen kasuan ere.

2. Zigor prozeduraren ondorio diren ardura administratiboak bateragarriak izango dira sortutako kalteak direla-eta arduradunari eskatuko zaizkion kaltea gertatu aurretiko egoeraren lehengoratze eskaerarekin, eta baita sortutako kalteen edo galeren ordainen indemnizazio eskaerekin ere. Kasu honetan, Alkateak-Presidenteak indemnizazio ordainketak zer nolakoak izango diren erabaki ahalko du, hori egiteko arau hausleari jakinaraziko diolarik, horretarako ezarritako epean, eta ahala egingo ez balitz, dagokion bide judizialari atea irekiaz.

3. Legezko xedapen batean jasotako obligazioak betetzea pertsona bati baino gehiagori dagokionean, sor daitezkeen arau hausteen eta horiei lotuta ezar daitezkeen santzioengatik modu solidarioan erantzun beharko da.

4. Dagokion legedian jasotako edukiaren bat etorriz, besteren batek edo batzuek eragindako arau-hauste administratiboak ekiditeko betebeharra duten pertsona fisiko edo juridikoak, aipatutako legedian ezarritako obligazioak urratzen diren kasuetan, erantzule subsidiario edo solidariotzat joko dira, beti ere, erantzukizun hori zigor erregimen ezberdinak arautzen dituzten legeetan finkatzen bada.

VI. KAPITULUA. PROPORTZIONALTASUNA ETA IRAUNGIPENA

*27. artikulua. Proportzionaltasuna.*

1. Arau-hausleari ez zaio ezarritako zigorrak dioena egitea hautsitako arauen betetzea baino mesedegarriago gertatuko. Hortaz, hau kontuan izan beharko da diru-zigorrak ezartzerako orduan.

2. Adunako Udalak ezarritako zigorren eta gauzatutako arau-haustearen arteko egokitasuna bilatuko du, zigor horren ezarpenerako ondorengo irizpideak baliatuko dituelarik:

a) Arau haustea egiteko asmoa azaltzea edo behin eta berriz errepikatzea.

b) Sortutako kalteen nolakotasuna.

c) Izaera bereko arau-haustean berriro erortzea, aurreko arau-haustearen ebazpena urte beteko epearen barruan eman denean.

*28. artikulua. Iraungitzea.*

1. Arau-hauste eta zigorrek legeek ezarritako iraungitze data izango dute. Lege horietan data zehatzik ezarri ezean, arau-hauste oso larriak 5 urteren buruan iraungiko dira, larriak 3 urtetan eta arinak urte betean; arau-hauste oso larriengatik ezarritako zigorrek 3 urteetako iraungitze data izango dute, larriek 2 urtetakoa eta arau hauste arinengatik ezarritako zigorrak urtebetera iraungiko dira.

2. Arau-hausteen iraungitze data ezartzeko arau-haustea eman zeneko data hartuko da kontuan.

3. Arau-hausteen eta zigorren iraungipena etenda geratuko da, interesduna jakinaren gainean egonda, zehapen espedienteari hasiera ematen zaionean. Ustezko erantzuleari leporatu ezin zaion arrazoiren batengatik zehapen espedientea geratuta egon den kasuetan, iraungipen epeari berriz ere ekingo zaio.

4. Ezarritako zigorren iraungitze epea, zigorra finkatzen duen ebazpena irmoa bihurtzen den hurrengo egunetik hasita zenbatuko da. Iraungitze epea etenda geratuko da ezartzeko prozedurari interesdunaren ezagutzapean hasiera ematen zaionean, eta preskripzio epea berriz ere zenbatzen hasiko da arau hausleari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik prozedurak hilabete bat baino gehiago etenda igarotzen duenean.

CAPÍTULO V. RESPONSABILIDAD

*Artículo 21. Sanción y responsabilidad.*

1. Solamente podrán ser sancionadas las personas físicas y jurídicas responsables de infracciones administrativas, incluso cuando se trate de simple inobservancia.

2. Las responsabilidades administrativas que sean consecuencia del procedimiento sancionador serán compatibles con la exigencia al infractor de la reposición de la situación alterada por el mismo a su estado originario, así como con la indemnización por los daños y perjuicios causados. En ese caso, el alcalde-presidente podrá decidir las indemnizaciones a abonar, lo que comunicará a la persona infractora en el plazo establecido para ello; y, en caso de incumplimiento, quedará expedita la vía judicial correspondiente.

3. Cuando el cumplimiento de las obligaciones recogidas en una disposición legal corresponda a más de una persona, se responderá solidariamente de las infracciones que se puedan producir y las sanciones que se puedan derivar de ellas.

4. De conformidad con el contenido de la normativa correspondiente, en los casos en que las personas físicas o jurídicas tengan la obligación de impedir infracciones administrativas cometidas por una o varias personas, se considerará a las mismas responsables subsidiarias o solidarias cuando se quebranten obligaciones impuestas por la norma mencionada, siempre y cuando dicha responsabilidad esté recogida en las leyes reguladoras de los diferentes regímenes sancionadores.

CAPÍTULO VI. PROPORCIONALIDAD Y PRESCRIPCIÓN

*Artículo 27. Proporcionalidad.*

1. La comisión de las infracciones no puede resultar más beneficioso para el infractor que el cumplimiento de las normas infringidas. Lo cual deberá ser tenido en cuenta al establecer la sanción pecuniaria.

2. El Ayuntamiento de Aduna tratará de adecuar la sanción a la infracción cometida, considerando especialmente los siguientes criterios al aplicar la sanción:

a) Existencia de intencionalidad o reiteración de la infracción.

b) La naturaleza de los perjuicios causados.

c) La comisión, en el término de un año, de más de una infracción de la misma naturaleza, cuando así haya sido declarado por resolución firme.

*Artículo 28. Prescripción.*

1. Las infracciones y sanciones prescribirán según lo dispuesto en las leyes que las establezcan. Si éstas no fijan plazos de prescripción, las infracciones muy graves prescribirán a los 5 años, las graves a los 3 años, y las leves a 1 año. Las sanciones impuestas por faltas muy graves prescribirán a los 3 años, las impuestas por faltas graves a los 2 años, y las impuestas por faltas leves, al año.

2. El plazo de prescripción de las infracciones se contará desde el día en que se hubiera cometido la infracción.

3. El plazo de prescripción de las infracciones y sanciones quedará interrumpido, con conocimiento de la persona interesada, por el inicio del expediente sancionador. En el caso de que el expediente sancionador esté paralizado durante más de un mes por causa no imputable al presunto responsable, se reanudará el plazo de prescripción.

4. El plazo de prescripción de las sanciones comenzará a contarse desde el día siguiente a aquel en que adquiera firmeza la resolución por la que se impone la sanción. El plazo de prescripción quedará interrumpido, con conocimiento del interesado, por el inicio del procedimiento de ejecución, volviendo a transcurrir el plazo si aquél está paralizado durante más de un mes por causa no imputable al infractor.

EK\CV GAO-I-2017-04649

VII. KAPITULUA. ZEHAPEN PROZEDURA

*29. artikulua. Igorpen legala.*

Izaera orokorrarekin, Adunako Udalaren zehapen ahalmena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen zehapen ahalmena arautzen duen 1998ko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen III kapituluan aurreikusitakoaren eta bere garapenean ezartzen diren xedapenen arabera eramango da aurrera. Hori guztia, noski, gaiarekin zerikusia duen arlokako legedian jasotako zehaztasunen aurka joan gabe.

VIII. KAPITULUA. EXEKUZIOA

*30. artikulua. Presazko prozedura.*

1. Titulu honetan araututako arau-hausteen ondorioz kaltetuta suertatu diren ondasunak bere onera ekartzeko asmoz aurrera eraman behar diren lehengoratze ekintzak subsidiarioki egitearen ondorioz sortzen diren gastuei aurre egiteko, ezarritako behartze isunak betearazteko eta ezarritako bestelako isunen zenbatekoa jasotzeko, premiamendu-bidea erabili ahal izango da.

2. Horretarako, ezarritako isunak dirutan ordaindu beharko dira eta, premiamendu bidea baino lehenago, isun horien ordainketa erantzuleari eskatuko zaio, bere borondatez premiamendua baino lehenago ordaintzeko aukera izan dezan.

IX. KAPITULUA. HELEGITE ADMINISTRATIBOAK

*31. artikulua. Helegiteak.*

1. Behin betiko erabakien aurka ahalbidezko berraztertzeko helegitea aurkeztu ahal izango da edo zuzenean administrazioko auzi-helegitea jartzeko aukera egongo da dagokion Auzitegi edo Epaitegien aurrean. Era berean, udal izapidezko egintzen aurkako berraztertze helegitea aurkeztu ahal izango da honako kasuetan: egintza horiek auzitan dagoen gaiaren funtsa zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozeduran aurrera egitea eragozten badute, eta berezko eskubide edo interesen aurka konpon ezin daitezkeen kalteak sortu edo babesgabetasuna eragiten badute.

2. Administrazio prozeduraren baitan emandako egintza irmoen aurkako berrikuspenerako ez-ohiko helegitea jarri ahal izango da soilik indarrean dagoen Prozedura Administratiboaren Legearen (4/1999 Legearen arabera idatzitako 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legea) 118.1 artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat gertatuz gero.

3. Zigor prozeduraren esparruan, froga garaia irekitzea eragozten duten instruktorearen egintzen aurka edo auziko alderdiek proposatutako frogak aurrera eramatea ezezten duten instruktorearen egintzen aurkako helegitea aurkeztu ahal izango da, prozedura erabakitzeko eskumena duen organoaren aurrean, 3 eguneko epean. Aipatu organoak dagokion erabakia hartu beharko du ere 3 eguneko epean eta ebazpena ez ematekotan, isiltasunaren esanahia kontrakoa izango da (hau da, interesdunak eskatutakoaren aurkako erabakia).

*32. artikulua. Erabakia betearaztea.*

Berraztertze helegitea aurkezteak ez du kontra egin den egintzaren exekuzioa etengo. Hala ere, helegitea argitzeko edo erabakitzeko ardura duen organoak aukera izango du, ofizioz edo helegitea aurkeztu duen pertsonak hala eskatuta, helegin den egintza hori eteteko. Horretarako, beti ere, beharrezkoa izango da organo horrek aldez aurretik behar bezala arrazoitu eta alderatzea etete horrek interes publikoaren edo hirugarrenen aurka eragin dezakeen kaltea, eta egintza horren bat-bateko eraginkortasunaren ondorioz helegitea aurkeztu duen pertsonari eragingo dizkion kalteak ere bai. Aldi berean, azken 2 egoera horiek behar bezala alderatu eta neurtzeaz gain, beharrezkoa izango da honako inguruabarrak ere gertatzen direla ziurtatzea:

CAPÍTULO VII. PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

*Artículo 29. Remisión legal.*

Con carácter general, la potestad sancionadora del Ayuntamiento de Aduna será ejercida de acuerdo con lo previsto en el Capítulo III de la Ley 2/1998, de 20 de febrero, reguladora de la potestad sancionadora de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en las disposiciones establecidas en su desarrollo. Todo ello sin perjuicio de las determinaciones recogidas en la legislación sectorial relacionada con la materia.

CAPÍTULO VIII. EJECUCIÓN

*Artículo 30. Procedimiento de urgencia.*

1. Se podrá optar por la vía de apremio para hacer frente a los gastos que se generen a consecuencia de las acciones llevadas a cabo de manera subsidiaria para la recuperación de los bienes que hayan resultado perjudicados a consecuencia de las infracciones reguladas en este Título, para hacer cumplir las multas coercitivas que se hayan impuesto, y para recaudar la cuantía de otras multas.

2. Para ello, las multas impuestas se deberán abonar en efectivo, y se instará al responsable al pago de dichas multas antes de dar comienzo a la vía de apremio, a fin de que pueda realizar el pago de forma voluntaria previamente a la vía de apremio.

CAPÍTULO IX. RECURSOS ADMINISTRATIVOS

*Artículo 31. Recursos.*

1. Contra los acuerdos definitivos se podrá presentar recurso de reposición potestativo, o bien interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante el tribunal o juzgado correspondiente. Asimismo, podrá presentarse recurso de reposición contra los actos de trámite municipales en los siguientes casos: cuando dichos actos deciden directa o indirectamente el fondo del asunto, determinan la imposibilidad de continuar el procedimiento, o producen indefensión o perjuicio irreparable a derechos e intereses legítimos.

2. Contra los actos firmes en vía administrativa, sólo procederá el recurso extraordinario de revisión cuando concurra alguna de las circunstancias previstas en el artículo 118.1 de la Ley de Procedimiento Administrativo, según la redacción de la Ley 4/1999, por la que se modifica la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

3. En el ámbito del procedimiento sancionador, se podrá presentar ante el órgano competente para resolver el procedimiento, en el plazo de 3 días, un recurso contra los actos del instructor que impidan la apertura del periodo de prueba, o contra los actos del instructor que recusen el desarrollo de pruebas propuestas por las partes en litigio. Dicho órgano deberá dictar resolución en un plazo máximo de 3 días, y en caso de no recaer una resolución, se entenderá que el silencio es desestimatorio (es decir, una resolución negativa a lo solicitado por el interesado).

*Artículo 32. Ejecución de la resolución.*

La interposición de un recurso de reposición no interrumpirá la ejecución del acto recurrido. No obstante, el órgano responsable de esclarecer o resolver el recurso podrá interrumpir el acto recurrido, por oficio o a petición de la persona que ha interpuesto el recurso. Para ello será necesario que dicho órgano justifique y coteje previamente el daño que pueda producir la interrupción mencionada al interés público o a terceros, así como los daños que pueda ocasionarse a la persona que ha interpuesto el recurso a consecuencia de la inesperada operatividad de dicho acto. Simultáneamente, además de comparar y valorar correctamente ambas situaciones, será necesario asegurarse de que también concurren las siguientes circunstancias:

EK\CV GAO-I-2017-04649

a) Egintzaren exekuzioak konpon ezinezko edo konpontzen oso zailak diren kalteak sortzea.

b) Inpugnazioa indarrean dagoen Prozedura Administratiboko Legearen (1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legea) 62.1 artikuluan jasotzen diren zuzenbidezko baliogabetasun-kausaren batean oinarritzea.

*33. artikulua. Isiltasun administratiboagatiko etetea.*

Aurka egin den egintzaren exekuzioa etenda dagoela ulertuko da, etete-eskaera horren inguruko erabakia hartzeko eskumena duen organoaren sarrera erregistroan aurkeztu eta baliodun 30 egun igaro ondoren, organo honek ebazpenik eman ez duenean.

*34. artikulua. Helegitea aurkeztea eta epea.*

1. Berraztertze helegitea aurka egin den egintza jasotzen duen ebazpena eman duen organo beraren aurrean aurkeztu behar da. Helegite horren gutxieneko edukia honakoa izango da:

a) Helegitea aurkeztu duen pertsonaren izen deiturak eta norberaren identifikazio pertsonala.

b) Helegin den egintza eta egintza horren aurka egitearen arrazoia.

c) Helegitea aurkeztu duen pertsonaren sinadura, tokia eta data, bitartekoaren identifikazioa, eta hala badagokio, jakinarazpenak jasotzeko tokia.

d) Helegitea aurkezten den organo, gune edo administrazio unitatearen izena.

e) Xedapen bereziek eskatutako bestelako berezitasunak.

2. Ahalbidezko berraztertze helegitea aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, egintza berariazkoa bada. Hala izango ez balitz, eskatzailea eta bestelako interesdunentzako, epea hiru hilabetetakoa izango litzateke ustezko egintza gauzatzen den egunetik zenbatzen hasita. 3 hilabete horiek igaro ondoren, bi hilabeteko epearen barruan soilik jarri ahalko da administrazioarekiko auzi-helegitea, beti ere, Ordenantza honetan adierazitako kasuetan berrikuspenerako ez-ohiko helegitea aurkezteko aukera ematen ez bada behintzat.

3. Helegitearen inguruko erabakia eman edo jakinarazteko gehienezko epea hilabete batekoa izango da.

4. Berraztertze helegite baten aurka ezingo da berriro ere berraztertze helegiterik aurkeztu.

BUKAERAKO XEDAPENAK

Ordenantza honek aurreikusi ez dituen gainerako alderdiak 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa eta gaiarekin lotutako ondorengo legediaren arabera, Euskal Herriko Ingurumen Babeserako 3/1998 Lege Orokorraren arabera, Adunako hiri-planeamenduan ezarritakoaren arabera eta, hala dagokionean, hiri-planeamendua osatzen duen edo ordezkatzen duen araudiaren arabera arautuko dira.

Era berean, Udalak eskubidea dauka ordenantza honen interpretazioaren ondorioz sor litezkeen interpretaziozko auziak argitzeko.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da bertan jasotzen den testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Tokiaraubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitako izapideak betetzean.

Aduna, 2017ko ekainaren 23a.—Josu Amilibia Alsua, alkatea. (4649)

a) Que la ejecución del acto provoque daños irreparables o difíciles de resolver.

b) Que la impugnación se fundamente en alguna de las causas de nulidad de pleno derecho previstas en el artículo 62.1 de la Ley de Procedimiento Administrativo en vigor (Ley 30/1992, de 26 de noviembre).

*Artículo 33. Interrupción por silencio administrativo.*

Se entenderá que la ejecución del acto recurrido ha quedado interrumpida una vez hayan transcurrido 30 días hábiles desde la presentación en el registro de entrada del órgano competente para resolver la petición de interrupción, sin que dicho órgano haya dictado resolución alguna.

*Artículo 34. Interposición de recurso y plazo.*

1. El recurso de reposición deberá presentarse ante el mismo órgano que dicte la resolución en la que se recoja el acto recurrido. El recurso deberá expresar, como mínimo:

a) Nombre y apellidos del recurrente, así como identificación personal del mismo.

b) El acto que se recurre y la razón de su impugnación.

c) Lugar, fecha, firma del recurrente, identificación del medio y, en su caso, del lugar que se señale a efectos de notificaciones.

d) Órgano, centro o unidad administrativa al que se dirige.

e) Las demás particularidades exigidas, en su caso, por las disposiciones específicas.

2. El plazo para la interposición del recurso potestativo de reposición será de un mes, si el acto fuera expreso. Si no lo fuera, el plazo será de tres meses y se contará, para el solicitante y otros posibles interesados, a partir del día siguiente a aquel en que se produzca el acto presunto. Transcurridos dichos plazos, únicamente podrá interponerse recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses, sin perjuicio, en su caso, de la procedencia del recurso extraordinario de revisión previsto en la presente Ordenanza.

3. El plazo máximo para dictar y notificar la resolución del recurso será de un mes.

4. Contra la resolución de un recurso de reposición no podrá interponerse de nuevo dicho recurso.

DISPOSICIONES FINALES

En todos los demás aspectos no previstos en la presente Ordenanza regirán la Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados, y demás normativa relacionada con la materia, la Ley 3/1998, general de protección del medio ambiente del País Vasco, lo dispuesto en el Planeamiento Urbanístico de Aduna, y, en su caso, la normativa que integra o sustituye dicho planeamiento urbanístico.

Asimismo, el Ayuntamiento de Aduna queda facultado para resolver cualquier duda que surja en la interpretación de la presente Ordenanza.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor tras la publicación de su texto íntegro en el Boletin Oficial de Gipuzkoa, una vez cumplidos los trámites establecidos por el artículo 70.2 de la Ley de las Bases de Régimen Local.

Aduna, a 23 de junio de 2017.—El alcalde, Josu Amilibia Alsua. (4649)

EK\CV GAO-I-2017-04649